

# MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure produktua, **NIMMO pultsera** da eta era guztietako jendearentzat zuzenduta dago. Batez ere, gauean aisialdian parte hartzen duen jendearentzat. Egia da 15-45 urte bitarteko emakume eta gizonezkoentzat pentsatuta dagoela bereziki. Badakigu egoera deseroso hauek ez dituztela adin mugarik eta gehienetan emakumeei eragiten dietela, baino gizon gutxi batzuei ere bai, horregatik gure produktua edozeini eskaintzen diogu.

Orokorrean, jende gazteari bideratuta dago. Gure produktua bereziki jaietan erabiltzeko oinarrituta dago; horregatik, adin handiko pertsonak ez diote hainbesteko erabilera emango, normalen ez dutelako parte hartzen horrelako jardueretan.



Pultsera erabiltzen duten bezeroak, lagunekin konektatuta egoteaz gain; poliziarekin elkar konektatuta egongo dira, arriskuan egonez gero eta botoia segundo batzuk sakatuz poliziari mezua iritsiko zaio, arriskuan zaudela abisatuz eta laguntzeko gai izango dira.

Esan beharra dago ere, gure produktua eskualdeka saltzen hasiko garela, eta arrakasta izanez gero, beste lekuetara zabalduko dugula.

Gaur egun, bi emakumeetatik batek indarkeria jasan du eta urteak pasa ahala portzentaiak handitzen doaz. 2021ean 38.715 pertsona adierazi zuten bere burua genero-indarkeriaren biktima gisa, 2020an baino gehiago. 2021ean, genero-indarkeriaren 251 biktima hil ziren herrialde osoan.



Lehen aipatu dugun bezala, zifrak geroz eta gehiago hazten doaz urteak pasa ahala eta 2022an Espainiako epaitegiek 40.491 salaketa jaso dituzte genero-indarkeriagatik. Hori ekiditeko gure pultsera asmatu dugu guztion ongizatea eta segurtasuna bermatzeko modu erraz baten bidez.

